

AuzoEkin. **Talde eragilearen sorrera.** **San Esteban.**

1. Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: apirilak 7

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: Ttonttor San Esteban Kultur Elkarte

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Xabier Murua, Osoigo enpresako ordezkaria.
- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoak.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 18 pertsona bertaratu ziren, 10 emakume eta 8 gizon.
- Batez besteko adina: 56
- Gazteenak 33 urte eta zaharrenak 77 urte

2. Diagnostiko-prozesuaren eguneraketa

Ongietorria eta saioaren kokapena

Garikoitz Lekuonak (Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoak) ongietorria eman die bertaratutakoei eta AuzoEkin prozesuaren baitan gaurko bilera non kokatzen den azaldu du laburki eta horrekin batera AuzoEkin prozesuaren helburuak gogoratu ditu.

Bestalde, prozesuaren oraingo fasea azaldu, eta hurrengoak identifikatu ditu dinamika hasi baino lehen.

3. Saioaren dinamizazioa eta emaitzak

Dinamikari aurkezpen txiki batekin eta prozesuaren inguruko espektatibak partekatzeko erronda batekin eman genion hasiera. Horrekin batera *Nola definituko zenuke San Esteban?* galderari erantzuten hasi ziren auzotarrak. Erantzunak honako hauek izan ziren: toki lasaiena; gure herri txikia; lasaiena, baina arazo batekin; iluna; bizipoza; familia giroa; lasaitasuna; lasaitasuna; aislatua, baina herritik gertu.

Horri lotuta, bigarren galdera hau izan zen: *Zein da auzoa/eremuarekiko nire konpromisoa?* Erantzunak honako hauek izan ziren: mantentzea eta hobetzea; mantentzea eta hobetzea; ikara, esentzia galduko delako; urbanistikoki ordenatu.

Behin galdera horiek erantzunda, eta giroan sartuta, talde eragilearen identifikazioarekin hasi ginen. Horretarako beheko txantiloia erabili genuen, eta eskatu genien identifikatu eta sailkatzeko eremuan ezagunak dituzten eragile, pertsona eta bestelako kolektiboak: ehun soziala eta biztanleria, ehun instituzionala eta ehun ekonomikoa.




DIAGNOSTIKOA / DIAGNÓSTICO

Talde eta eragileen identifikazioa / Identificación de grupos y agentes clave

auzoekin

EHUN SOZIALA ETA BIZTANLERIA (Talde eta eragile garrantzitsuak)	EHUN INSTITUZIONALA (Talde eta eragile garrantzitsuak)	EHUN EKONOMIKOA (Talde eta eragile garrantzitsuak)
TEJIDO SOCIAL Y POBLACIÓN (Grupos y agentes clave)	TEJIDO INSTITUCIONAL (Grupos y agentes clave)	TEJIDO ECONÓMICO (Grupos y agentes clave)

- Ateratako emaitzak:




- Ehun soziala eta biztanleria: «Bombero, Boxa, Toloboley, Erraldoi eta buruhaundien konpartsa, Tontor, Ereite, ukrainarrak, moldaviarrak (Elena), Gimnasia Ritmica, marokoarrak».
- Ehun instituzionala: «Osasun mentalaren zentroa, Osakidetza, Renfe, Ferialekua, Udala, 28 kanala».
- Ehun ekonomikoa: «Hiru-Aldeta, Ataria, Kaldereria, Babarrun kofradia, Martin Txiki Baserria, Saneamientos Elosegi, Gure Zirkua, El Rincón de San Esteban, Peugeot, Errotatxo».

Beheko txantiloia erabiltzaileak, eskatu zitzaizkien sailkatzeko identifikatutako talde eta eragileak eremuan duten presentzia eta inplikazioaren arabera: inplikazio handia (zentroan), inplikazio ertaina (erdian) eta inplikazio txikia (inguruan).



Ateratako emaitzak:




- Inplikazio handia: «Tontor, moldaviarrak (Elena), Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, Boxa, Auzoko Txaranga, Peugeot, Hiru-Aldeta, Tapizeria»
- Inplikazio ertaina: «Bombero, ToloBoley, Gure Zirkua, Ataria (Festetan), El Rincón de San Esteban»
- Inplikazio txikia: «Babarrun kofradia, Giltzen tailerra, Ferialekua / Udala, Tolargi, 28 Kanala, Gimnasia Ritmica, Renfe, errumaniarrak, hego-amerikarrak, marokoarrak, ukrainarrak, Oreka Slackline, Osakidetza, Osasun Mentalaren Zentroa, Heladeria Gosua, Errotatxo Obradorea, Kaldereria Ulinox, Saneamientos Elozegi».

Beheko txantiloia erabilita, eremuko indargune eta mehatxuak identifikatzeko eskatu zitzairen. Bizilagunetako batek ere proposamen **zehatz** batzuk ere egin zituen.

TOLOSA  DIAGNOSTIKOA / DIAGNÓSTICO INDARGUNE ETA MEHATXUAK / FORTALEZAS Y DEBILIDADES <i>auzoekin</i>	
KORAPILOAK / BALAZTAK (-)  ← NUDOS / FRENOS (-)	PALANKAK / MOTORRAK (+) →  PALANCAS / MOTORES (+)
PROPOSAMENAK (>) PROPUESTAS (>)	

Ateratako emaitzak:



Korapiloak / Balaztak: «biztanleria zaharra, garapen urbanistikoaren beldurra, generazio aldaketa auzo elkartean, “barrio dormitorio” efektua, ikuspuntu politotik San Estebanen proiektu amankomun falta, nekea eta frustrazioa».

Palankak / Motorrak: «Auzoaren lasaitasuna, parkea, auzotarren partehartzean inplikazioa, kanpo jatorriko jendearen inplikazioa bermatzeko aukera».

Proposamenak: «itzala ezartzea (zuhaitzak), panel solarren proiektua eta alkantarilak garbi mantentzeko mezua jartzea».

Beheko txantiloia erabilita, eremuan parte-hartzeko erabiltzen diren espazio eta kanalak identifikatzeko eskatu zitzaien.

ESPAZIOAK ETA INFORMAZIO KANALAK	ESPAZIOAK ETA PARTE HARTZE KANALAK
ESPACIOS Y CANALES DE INFORMACIÓN	ESPACIOS Y CANALES DE PARTICIPACIÓN

DOKUMENTUAK

DOCUMENTOS

Ateratako emaitza:



Espazioak eta informazio-kanalak: etxe-atarietan informazioa jartzea, Amaia Telleria (auzoko sare sozialak gestionatzen ditu), Hiru-Aldetak mezua zabaltzeko indarra.

Espazioak eta parte-hartze kanalak: auzo elkartea, parkea, festak (urriak 12), krosa (urriaren hasieran), San Joan sua (ekainak 21), Garagardo-feria (ekaina).

Azkenik, beheko txantiloia erabilita azken hausnarketa bat egiteko eskatu zitzaien bizilagunei: *Zergatik nahi zenukete parte hartu?, Zertarako nahi dut Toki Garapenerako Estrategia?, Zer espero dut?, Nire ustez, zer eman edo partekatu dezaket?*

TALDE ERAGILEAK
GRUPO MOTOR

ZERGATIK NAHI ZENUKE PARTE HARTU? ¿POR QUÉ QUIERO PARTICIPAR? (Arrazoiak / Motivaciones)	ZERTARAKO NAHI DUT "TOKI GARAPENeko ESTRATEGIA"? ZER ESPERO DUT? (Helburuak eta itxaropenak)	NIRE USTEZ, ZER EMAN / PARTEKATU / JOKOAN JAR DEZAKET? (Kapitalak)
	¿PARA QUÉ QUIERO "UNA ESTRATEGIA DE DESARROLLO LOCAL"? ¿QUÉ ESPERO? (Objetivos y expectativas)	¿QUÉ CREO QUE PUEDO APORTAR / COMPARTIR / PONER EN JUEGO? (Capitales)

Ateratako emaitzak:

TALDE ERAGILEAK GRUPO MOTOR

ZERGATIK NAHI ZENUKE PARTE HARTU?
¿POR QUÉ QUIERO PARTICIPAR?

ZERTARAKO NAHI DUT "TOKI GARAPENKO ESTRATEGIA"? ZER ESPERO DUT?
(Helburuak eta itxaropenak)

NIRE USTEZ, ZER EMAN / PARTEKATU / JOKOAN JAR DEZAKET?
(Kapitalak)

¿PARA QUÉ QUIERO "UNA ESTRATEGIA DE DESARROLLO LOCAL"? ¿QUÉ ESPERO?
(Objetivos y expectativas)

¿QUÉ CREO QUE PUEDO APORTAR / COMPARTIR / PONER EN JUEGO?
(Capitales)

Zergatik nahi zenuke parte hartu?

- «Gure herria txikia» delako eta zaindu behar dugulako.
- Auzoaren esentzia gorde nahi dugulako.
- Askatasuna eta «leku segurua» bermatu nahi dugulako.
- Auzo lotura sendotu behar dugulako, Ttorre eta gainontzeko auzoaren artean.

Zertarako nahi dut Toki Garapeneko estrategia? Zer espero dut?

- Trafikoa ez sartzeko, kutsadura asko sortu dezakeelako eta dagoen lasaitasuna murriztu
- Ditugun behar espezifikoak kontatu eta aurre egiteko
- Argi asko duen auzoa gara, eta garapen urbanistiko orekatu bat bermatu nahi genuke, argi hori ez galtzeko.
- Espazio naturalak areagotu nahi ditugu
- Auzoaren eta Udalaren arteko harremana estutu eta sendotzeko

Nire ustez, zer eman edo partekatu dezaket?

- Hurrengo saioetan gainontzeko lurralde eta kulturetako jendearen parte-hartzea bermatzen, edo behintzat haien iritzia kontutan izaten.

Saioa amaitu baino lehen, Ikertaldeak egin behar dituen elkarrizketa sakonetarako hautagaiak eskatu ziren, auzoa ikuspuntu ezberdinetatik kontatuko duen jendea. Honakoak izen hauek atera ziren:

- Ana Marijuan
- Naiara Olaya
- Jorge del Nozal
- Amaia Telleria
- Idoia Sanchez

Saioko irudia:

